



IRUTXULOKO HITZA

Horra zer den gure donostia!

58. BEHOBIA DONOSTIA



IÑIGO ETXEBERRIA

BEHOBIA-DONOSTIAKO
KOORDINATZAILEA

«LEHIAKORTASUNA BIGARREN PLANO BATEAN DAGO ORAIN»

Igandean egingo dute Behobia-Donostia lasterketa, eta ia 30.000 korrikalarik hartuko dute parte aurtan ere, urtero bezala. Lasterketaren antolaketa «oso ezkutuko lana» dela adierazi du Iñigo Etxeberriak, ekitaldiko Behobiako koordinatzaileak.

Nola antolatzen da Behobia-Donostia?

Antolakuntza urte osokoa da, eta oso ezkutuko lana da, gainera. Lau pertsona gaude urte osoan Behobiako proiektua aurrera eramaten: babesleak, laguntzaileak, harremana, alderdi teknikoa, baita men eskaerak, logistika, komunikazioa eta abar bideratzen. Martxoan hasten dira izen emateak, eta ordurako dena prest edukitzeko, aurretik hasi behar da dena prestatzen.

Bost udalekin daukagu harremana, baita hainbat zerbitzurekin ere, Renferekin eta Euskotrenekin, adibidez. Tren zerbitzu bereziak daude egun horretan,

T&A Nagore Garmendia

Zure bizi kalitatea  bitartez hobetzeko

www.fisiodonosti.net · info@fisiodonosti.net · 943-10 98 42 · 630-62 62 72 · Usandizaga kalea, 12, beheka - Gros



Hainbat korrikalari, iazko Behobia-Donostian, Mirakruz gainetik Groserantz jaisten. **OIER ARRIBAS CIRIA**

guk kudeatzen ditugunak. Autobus konpainiak, ospitalea... beroa egin due-lako jende gehiago joan bada, ospitalea-rekin harremana daukagu eta jarraipen bat egin behar da. Azken hoge urteotan ohitu gara gauzak eskatu eta berehala edukitzen, eta hori orain aldatzen ari da. Behobia bat bukatu eta segituan hasten da hurrengo urtekoaren antolakuntza, urtarrilean. Hainbeste kamisetaren eskaera otsailean egin behar da, eta horren aurretik zeregin batzuk dau-de, diseinua, esaterako. Gustatzen zai-gu mezua eta diseinua lantzea.
Zenbat korrikalarik eman dute izena?

29.700 inguruk. Muga 30.000 korrika-laritan dugu, baina muga baino eskaera gehiago egoten dira, normalean, eta ezezkoa eman behar diegu. Dena pres-tatuta dago kopuru baterako, kamisetak eskatuta daudelako, material guztia...
Euskal Herrikoa ez den jendeak parte hartu ohi du. Asko al dira horiek?
Korrikalarien %65, kanpotik datoz. Ba-tez ere, Espainiako Estatutik. Frantzian ere badago tradizio handia. Badaude atzerritar batzuk, tantaka, 40 bat egon daitezke Alemaniatic edota Italiatic datozenak. Kataluniatik 6.200 pertso-na datoz aurten, eta Madriletik, beste 4.000. Kataluniarekin beti egon da ha-

rreman estua, baina, egoera politikoa asko aldatu da, eta, horrezkero, nabari-tu da Espainiako Estatuko beste leku batzuetatik animatu dela jende gehia-go.

Zein da parte hartzaileen batez bes-teko adina?

Gizonezkoetan mantentzen den adin tarte nagusia 40 eta 50 urte bitartekoa da, eta emakumezkoetan 26 eta 30 urte bitartekoa.

Urteak daramatzazue emakumeen parte hartzea sustatu nahian. Zen-batekoa da aurten emakumeen par-te hartzea?

Igo egin da. %30,2ra iritsi zen ekainean,



**Behobiarekin
bat!**



Zarategi pasealekua, 69 behea
Intxaurrondo

687 032 934

fisioaroga@gmail.com

Arantza Romero **599 zkia. koleg.**
Vanessa Fraile **2.108 zkia. koleg.**



Gero eta emakume gehiagok hartzen dute parte Behobia-Donostian. **OIER ARRIBAS CIRIA**

baina azken hilabetetan baja batzuk suertatzen dira, eta baja horien portzentajerik altuena emakumezkoena da, tamalez. %29,5 batean gaude orain.

50/50/25 proiektua jarri dugu martxan, eta 2025rako parekidetasun bat bultzatzea da helburua. Belaunaldi berriak daude orain, eta, interesgarriena da mugak nagusiki kulturalak direla. Estrukturala ere bada arazoa, kirolean garrantzia gehiago ematen zaielako gizonetzko. Erreferente falta egon izan da emakumeetan, euren familia eta in-

guruan. Legeak esan arren berdintasun bat dagoela, horrelakoetan ikusten da ezetz. Ikusten da desberdintasun bat dagoela ohituratan, eta kalean nabaritzen da. 1980ko hamarkadan, footing egitea modan jarri zenean, oso gogorra zen emakume batentzat kaletik korrika egitea. Sekulako astakeriak esaten zizkieten, baita orain ere, baina dagoeneko ez dugu onartzen. Lehen onartu egiten zen. Garrantzitsua da neska gazteek ikustea bere inguruan posible dutela 20 kilometroko lasterketa bat egin.

Zein aldaketa egongo dira aurreko urteko Behobia-Donostiarekin alderatuta?

Dena berdin mantenduko dugu, baina egitasmo berri bat eraman dugu aurrera, Bidasoako Atletiko taldearekin batera: Biziki. Talde irekiak sortu ditugu entrenatzeko, bai lehen geneuzkanak indartzeko, baita profil hasiberrientzat ere. Irailean jarri genuen martxan proiektua, eta Irunen eta Errenterian daude taldeak, esaterako. Espainiako Estatuko jende asko dator, eta, hortaz, zabaldu egin nahi

BARNE DISEINUA ALTZARIAK



Ametzagaña 7
Egia · Donostia
www.apal.eus
943 320400
info@apal.eus



izan dugu: ezaugarri zehatz batzuk dituen talde bat izatekotan, gure webgunean ematen dugu horien berri, jendeak ezagutu ditzan.

Boluntario mordoa dago ibilbidean zehar. Eskertzekoa izango da, noski.

Funtsezkoak dira. Jendeak bere esfortzu guztia jartzea, laguntzera etortzea... hori oso esker onekoa eta polita da korrikalariarentzako. Hala ere, gutxitzen ari da. Kosta egiten da konpromisoa hartzea, batez ere belaunaldi berrietan. Garai batean, herriarengatik eta baliabide gutxiarekin egiten zen dena. Orain, dena diruaren truke egitera ohitu gara. Gu hazten joan ginenean ere, gure klubeko jendearekin ez zen nahikoa, eta beste klub batzuen laguntza bilatu genuen. Elkarrekin horrek jendea jartzen du, eta guk diru laguntza bat ematen diogu elkarteari. Atzegiko kideek ematen dituzte dominak, aspalditik dugu harremana beraie-

kin. Ubako gazteen zentrotik ere eskatu digute laguntza, eta oso polita da, denontzako leku bat delako. Pertsona bezala besteei laguntzen egoteak ere on egiten dizu.

«GARRANTZITSUA DA NESKA GAZTEEK IKUSTEA BERE INGURUAN POSIBLE DUTELA 20 KILOMETROKO LASTERKETA BAT EGIN»

«GIROA OSO BAIKORRA IZATEN DA, IKUSLE MORDOA DAGO, ETA OSO MOTIBATUTA DAGOEN JENDEA GEHIAGO BULTZATZEN DU HORREK»

Lehiakortasunik nabaritzen al da korrikalarien artean?

Lehiakortasuna bigarren plano batean dago orain. Marka egin nahi duen jendea

dago, noski. Beroarekin izaten dugu arazorik handiena; azken urteotan oso arduratuta gaude beroarekin. Marka egitera doan pertsona horiek dira giroa neurtzen ez dutenak, eta hortaz, ospitalean bukatzen dutenak. Erreferentziazko lasterketa bat da, herri lasterketen artean. Giroa oso baikorra izaten da, ikusle mordoa dago, eta oso motibatuta dagoen jendea gehiago bultzatzen du horrek. Motibazioa ez da beti oso positiboa, jakin behar da neurtzen eta esaten «gaur agian ezin da marka egin».

Gogotsu zaudete?

Bai, beti. Lehen helburua izan dadila disfrutatzea, eta, gero, gustora geratzea egindakoarekin. Behobia egunaren aldearik garrantzitsuena, euskaldunentzat behintzat, lasterketa osteko parranda da. Kirol proba bat baino gehiago, proba sozial bat dela esango nuke. Izan dadila festa bat.

 **Zurriola ikastola**
guztiok, guztiona, guztiontzat



Tel: 943 27 25 87

www.zurriolaikastola.eus



Behobia-Donostia, desgaitasuna normalizatzeko lasterketa

Kemen kirol klubak ia 30 urte daramatza kirolaren bitartez desgaitasuna dutenen pertsonen alde lanean. Urte osoan zehar jarduerak antolatu arren, jakin badakite Behobia-Donostia lasterketarekin dutela ikusgarritasun handiena.

T&A Olatz Balda Sagarzazu

U rteroko legez, Kemen Kirol Klubak Fortuna izango du bidelagun degaitasunen bat dutenen Behobia-Donostia antolatzeko. Aurreko urteeko kirolari kopuruarekin alderatuta, aurtun baxuagoa izango dela onartu du Fernando Mitxelena zuzendariak, atleta askok Parisko Olinpiar Jokoetan jarrita dutelako burua: «Haien prestaketarako bortitzegia da lasterketa hau». 58. Behobia-Donostia lasterketan —Kemen klubaren 38.ean— 64 atletek hartuko dute parte, horietatik 22 gipuzkoarrak.

Gurpilen gainean egingo dutenen artean, hoguei kirolari arituko dira esku bizi-kletan, eta, aldiz, bi soilik izango dira



LAIA
ABOKATUAK

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



ILAZKI
EUSKALTEGIA

HABEk diruz lagundua
HADE EUSKO IRULARITZA GOBERNO VASCO

Zabaldu zure mundua

www.ilazki.eus
Konstituzio plaza, 5
943-42 49 10
ilazki@ilazki.eus

gurpildun aulkien kategorian. «Jende asko gurpildun aulkitik esku bizikletara pasatu da, abiadurekin aldapak errazago igotzen direlako», azaldu du Mitxelenak.

Ikusmen urritasuna duten kategorietan, berriz, hamazazpi pertsona arituko dira lehian, atleta eta gidari artean. Bi kategoritan banatzen dira: B1 eta B2, ikusmen mailaren arabera. Aurtengo lorpena, ordea, atleta gorren modalitatean izan dute; izan ere, hogeitaz hamar pertsona izena, iazko parte hartzaile kopurua laukoiztuta. Era berean, desgaitasuna duten bost atletek oinez egingo dituzte ibilbidearen 20 kilometroak.

Boluntarioen lana eta aitortza

Hori guztia koordinatzeko boluntarioen lana «ezinbestekoa» dela onartu du klubeko zuzendariak. Aurten, 200 pertsona inguru arduratuko dira kirolariak eta euren materiala garraiatu, eta helmugako harrera egiteaz. Horrez gain, egokitutako autobus bat, lau mikrobus, bi furgoneta eta kamioi bat erabiliko dute aulkia eta esku bizikletak batetik bestera garraiatzeko. «Lan handiko asteburua» dela onartzen dute, baina bildutako esperientziarekin lasai egiten diote aurre, «bakioitzak bere egitekoa oso argi duelako».

Era berean, urteroko moduan, elkartarekin konprometitu dagoen pertsona baten lana omentzeko, Lurdes Zubillaga zendutako boluntarioaren izenean sortutako saria banatuko dute. «Aurten, berezia izango da, bere alabetako bati emango diogulako», azaldu du Mitxelenak.

Lasterketatik haratago

Atzera begiratzen badute, aurrerapauso handiak eman dituztela onartzen du klubeko zuzendariak. «Hasieran, gurpildun aulki normalak erabiltzen genituen eta zoro moduan begiratzen gintuzten», gaineratu du. Orain, ordea, punta-puntako materiala eskuratzeko moduan daude, eta horrek egiten ditu hein batean erakargarri. «Aholku bila etortzen dira asko, kirol berria probatzera», azaldu du Unai Lopetegi klubeko sentsibilizaio koordinatzaileak. Lo-

Sentsibilizazio alorrean Behobia-Donostia dute erakusleho nagusi, urte osoan zehar eskoletan jarduerak egiten dituzten arren

petegiren arabera, egun duten kirol materialari esker kirolak probatzeko aukera ematen dute, batik bat, prezioak ordainezinak direlako hasi berri diren kirolarientzako. «500.000 pezetan klubak gisa izendatu gaituzte, hemen dugun tramankulu bakoitzak 3.000 euro balio dituelako», gaineratu du Mitxelenak.

Materiala kanpoko eskola eta eragile zein bazkideentzat jartzen dute erabilgarri. Egun, hamiaka kirol jarduerak eskaintzen ditu klubak, eta besteak beste, eskia, atletismoa, pilota, mendizaletasuna, tiro olinpikoa edo golfak probatzeko aukera dago: «Denetarik dugu klubean, batzuk lehiarako prestatzen dabiltza buru-bela-

rri eta besteak aisialdi gisa hartzen dute. Hemen, bakoitzak jartzen du muga». Horrez gain taldeko laguntza psikologikoa eskaintzen dute, «bat-batean hanka edo beso bat galdu duen pertsona baten» besteen esperientzietatik ikasi eta bereak partekatu ditzan.

Boluntarioen lana eta aitortza

Kirolaren bitartez, hain zuzen, lortzen dute klubaren beste helburu nagusienera: desgaitasuna gizartean ikusaraztea eta hura normalizatzea. Alor horretan, Behobia-Donostia dute erakusleho nagusi, baina sentsibilizazio jarduerak mordoa egiten dute urte osoan zehar. Eskoletan ibiltzen dira batik bat, jolasen eta kirolari profesionalen hitzaldien bitartez lanketa egiten. Haurrek helduek baino aurreiritzi gutxiago dituztela dio Fernando Mitxelenak, eta zalatzak daudenean, galderak jasotzea nahiago izaten duela: «Helduek ez dakite nola jokatu gurekin, eta batzuetan haur txikiak bagina bezala hitz egiten digute. Beti esan izan dugu aulkia burutik kendu eta ipurdian jarri behar dugula».

Sentsibilizazio alorrean egindako lanaren fruituak ikusten ari diren arren, bide luzea egiteke dutela dio Maider Mitxelena klubeko idazkari nagusiak: «Etorkizuneko helburua Kemen desgaitu edo kirol klub arrunt bat izatea da; hala balitz, jendeak desgaitasunen bat izan ala ez, edozein klubetan kirola egiteko aukera izango lukeelako».





**easo
politeknikoa**

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Aurten ere gure ikasleak B/SSean laguntzaile

17+1